

OSO GUNEKO ERAKASKERA  
1994-95

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Frantxiako eta Ganix nola dira?
2. Zorbat guarda badira, nor dira, zer egiten dute?
3. Eta Piarresek zer egiten du hesi jaritako?

② ORTZANGO ERREKAN 5

Beti-betan, hatsantuak, elgarrenganik hogoi urhatsetan, laster eta laster heldu, atheratzen zaizkote Frantxiako eta Ganix, espion agitzaileak: (1) g- g, (2) - - - - - argitzaile.

"-Guardak! Hortxet heldu, Motxoko aldetik hunat makurturik..."

Eta hanbertzenarekin, oihu bat aintzinetik: "Haltelá!" Eta gero tiro bat... Handia eta itsasuarra, hor aintzinenan!... Bertze oihu bat, bertze tiro bat gibel hartan... Xilarreneko guardak, heldu hek ere, malezian ordu arte beren buruak baztertutik...

"-Debruen bisaia!<sup>30</sup> Salatuak gaituk. Berma" hor, muthikoak, eta nik erranak oro egin!..."

Piarresk Handia hor du, hamar urhatsetan, bere zango alimaleekin heldu, jauzika: itsasuarra gibelaxagotik, lasterka hura ere. Piarresk, egundaino ordu arte, ez du pottokarik utzi guardetan atrebituenari... Berehala, ahapetik, ithoka, erraiten dio bere lagunari:

"-Bahaiza, to? Zafra<sup>32</sup> zak hire hoi, eta jo biek eskuin, bethi eskuin."

Eta Handia, bere beso kankailekin, gizon edo potoka, zerbeiten hartzera doalarik, jauzi batean eskapatzen zaizko pottoka eta gizonak, irrintzireka pottokak, erhotuak gizonak. Oren laurden oso bat, othaskaz othaska, pentokaz<sup>33</sup> pentoka, fur furian<sup>34</sup> eta trumilka<sup>35</sup> doazi hiru gizonak. Doi doiak egiten du saratarrari lotzen ez zitzaio guarda thematsua. Bainan ez. Aski goizik bazterrerat salto egiten du kontrabandixtak; eta orai, guarda bethi ondotik, ximixta bezala badoa Piarres, bere bi pottoka erhotuak airean deramatela, haur bat eramanez bezala. Umatua<sup>36</sup> da, leher egina. Buru-

has, galtzak pusketan, badoa bethi, ithotzera doana arbola adarrari bezala, aztaparka lothua kaprestuari...

③ ADITZ IKASKUNTZA

- 31. Salatuak gaituk 32. Erraiten dio
- 33. Doalarik 34. Ez baitzaio.

31. IZAN - tutoiement Indicatif Présent

Ni nik /n	= je suis
Hi haiz (hiz)	= tu es
Hura du /n	= il est
Gu gitek (gaituk) /n	= nous sommes
Zuek zirezte (zaretz)	= vous êtes
Hek dituk /n	= ils sont.

32. UKAN - Conj. à dble epl. Indicatif Présent

Hari = à lui

Nik diot	= je le lui ai
Zuk diozu	= tu le lui as
Harek dio	= il le lui a
Guak diogu	= nous le lui avons
Zuek diozue	= vous le lui avez
Heiek diote	= ils le lui ont

Conjugaison périphrastique :  
 Emaniten diot = je le lui donne  
 Eman diot = je le lui ai donné  
 Emanen diot = je le lui donnerai

33. JOAN - Aller - Indicatif -

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa = je vas	nindoan
Hi hoa =	hindoan
Zu zoatzi =	zindoatzen
Hura doa =	zoan
Gu goatzi =	gindoatzen
Zuek zoazte =	zindoazten
Hek doatzi = etc.	zoatzen